



EL CONTRATO

ERAKUSKETA

2014ko urriaren 2tik 2015eko urtarrilaren 11ra

Komisarioa:

Bulegoa Z/B



BABESLEA

BBVA

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Reino de los Países Bajos



EMBAJADA DE SUECIA
Madrid



0000000000

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

EL CORREO


SEIZ

ARTEA ETA
KULTURA

Alhóndiga
Bilbao

Kultura Bizi
Den Tokia

www.alhondigabilbao.com



EL CONTRATO

2014ko urriaren 2tik 2015eko urtarrilaren 11ra


2013. urtean AlhóndigaBilbaoren gonbidapen bat jaso genuen, lankidetzaproiektu bat egiteko. EL CONTRATO izan zen gure erantzuna, bi urteko egoitza. Lehenengo urtean, irakurketa-talde bat jarri genuen abian, testu batzuk ardatz gisa hartuta. Saio horien bidez, sakon ikertu nahi genuen esan gabeko eta oro har onartutako akordioek nola baldintzatzen dituzten kontuak egiteko, egoteko eta jokatzeko ditugun moduak eta praktikak.

Hamabi irakurketa-saio horietan landutako hausnarketak eta egindako eztabaidak berriz formulatu ditugu erakusketa honetako edukiak eratzen dituzten hamabi ataletan. Erakusketa osatzeko, hitzaldiak, zinema, ekintza performatiboak eta proposamen eszenikoak dituen programa bat antolatu dugu. Hiru hilabete hauetan berriz jarriko dugu abian EL CONTRATO irakurketa-taldea, eztabaida berriak pizteko. Guk galdera hau egiten diogu geure buruari: begien bistako kontratu esplizituak alde batera utzita, zein dira egunean-egunean mugatzen gaituzten beste kontratu –afektibo, ikusezin eta esan gabeko– horiek?

Bulegoa Zenbaki Barik

Bulegoa z/b arte eta jakintza-arloko ekimena Bilboko Solokoetxe auzoan dago. Honako hauek eratzen dute: Beatriz Cavia, Isabel de Naverán, Miren Jaio eta Leire Vergara.

www.bulegoa.org



EL CONTRATO IRAKURKETA- TALDEA


Taldeka irakurtzeko aldian behin biltzea lagungarria da ikuspegiak trukatzeko, eztabaidatzeko eta eztabaidak ustekabeko norabideetatik jotzeko. Lagun-talde batekin testuak irakurri eta bateratze-lana eginez, EL CONTRATO taldearen ikerketa bi urtez egituratu da, astiro, etengabe eta hizketan jardunez.

EL CONTRATO irakurketa-taldeak bialdi ditu: lehena 2013ko apirilaren eta 2014ko otsailaren artean izan zen; eta bigarrena 2014ko urriaren eta 2015eko urtarrilaren artean izango da, EL CONTRATO erakusketarekin batera.

2013an, Bulegoa z/b arte eta jakintza-erloto ekimenaren proiektu orokorra eratzen duten lau arloak berraztertu zituen irakurketa-taldeak: soziologia, komisariotza, kritika, koreografia. Taldean, era askotako dokumentuak partekatu ziren: saiakerak, testu historikoak, epaile-aktak, hitzaldiak, poemak, prosa, filmen kritikak, albisteak, elkarrizketak, filmak edota audio-erregistroak. Hiru orduko saioetan, ozen irakurri dugu, eztabaida egin dugu, eta talde-idazketako ariketak ere egin ditugu.

Honela izan dira bilerak: sarrerako saioa; hamabi saio, Bulegoa z/b ekimeneko bi kide moderatzaile-lana eginez haietako bakoitzean; eta lau saio, lau gonbidatu moderatzaile-gisa arituta: Héctor Bourges, Catarina Simão, Filiep Tacq eta Elena Casado.

Irakurketa-taldearen bigarren aldia Alhóndiga Bilbaoko Erakusketa-Aretoan izango da, sei saio izango ditu, eta lehenaldiak izan duen metodologia bera izango du: testuak irakurriko dira, haietaz eztabaidatuko da, taldeko kideek gertatutakoari buruzko kronikak idatziko dituzte, eta hurrengo bileran irakurri egingo dituzte. 2013an abiarazitako irakurketa-taldeko parte-hartzaileak arituko dira moderatzaile gisa saio bakoitzean. Testuak honako hauek proposatu dituzte, erakusketan aurkezten dituzten lanak oinarritzat hartuta: Ricardo Basbaum, Kajsa Dahlberg, Luca Frei, Teresa Lanceta, Karl Larsson eta Wendelien van Oldenborgh. Kasu batzuetan, artistak bertan izango ditugu, irakurketa-saioetan.



EL CONTRATO ERAKUSKETA


EL CONTRATO irakurketa-taldearen lehen aldian Bulegoa z/b ekimeneko kideek moderatu zituzten hamabi saioek erakusketa egituratzen duten hamabi ataletan dute isla. Atal bakoitzean sartutako obren eta saioetan irakurri eta eztabaidatutako edukien arteko harremanak ez du hertsia izan nahi, ezta argigarri gisakoa ere. Aitzitik, galdera berriak piztu nahi ditu, berrikus daitezkeen onartutako akordio horiei buruz.

Obrak Luca Freik asmatutako egituran agertzen dira. Horrek irakurketa-saioen hainbat sarrera edo garapen egiten ditu, erakusketako gunean eta denboran.

- 1 KONTRATU SOZIALAREN ESZENARATZEA
- 2 GORPUTZEN ARTEKO KONTRATUA
- 3 KONTRATUA PRODUKZIO MODUETAN
- 4 KONTRATUA GAILU BEZALA
- 5 KONTRATUAREN DESMUNTAIA
- 6 TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO KONTRATUA
- 7 KONTRATUAREN DESKLASIFIKAZIOA
- 8 KONTRATU IDATZIA ETA AHOZKO KONTRATUA
- 9 KONTRATU PEDAGOGIKOA
- 10 KONTRATUAREN PERFORMATIBITEA
- 11 ARTXIBOA KONTRATU BEZALA
- 12 KONTRATUA PENTSATZEAREKIN

Erakusketa Aretoa. -2 solairua
Sarrera dohainik

ERAKUSKETA ARETOKO ORDUTEGIA
Astelehenetik ostegunera 11:00 - 20:00
Ostiraletan eta larunbatetan 11:00 - 21:00
I Gandetan 11:00 - 20:00



1. SAIOA

KONTRATU SOZIALAREN ESZENARATZEA

2013ko maiatzak 6

BEATRIZ CAVIAK eta ISABEL DE NAVERÁNek gidatua

TESTUA:

Isaac Joseph: 'Dramak' eta 'Interakzioaren ordena eta bere hiztegia'. In: *Erving Goffman eta mikrosoziologia* (1998)

Irakurketa taldearen lehen astelehena: agurtu, eseri eta eguneko irakurketari ekiten diogu. Arlo soziala esplikatzeko Goffman-ek XX. mendeko 60ko hamarkadan erabiltzen duen antzerkiaren metaforaren eskutik garamatza Joseph-ek. Metafora honen arabera, norbanakoak, aurrez ezarritako kontratu ikusezin baten arauak jarraituz elkarreragiten du eguneroko bizitzako agertokian. Kontratu soziala, egiteko moduak interpretatzeko bitarteko izango den nahitaezko, baina era berean deserosoa den fikzio bezala azaltzen da. Lehen saio honek bere ziurgabetasunetara hurbiltzen gaitu. Nola eszenaratzen da ordena? Zerk defini dezake nork antzezten duen? Zer da eszena? Posible al da hortik at bestelako kontraturik sinatzea?

‘México mi amor. Nunca mires atrás’

TEATRO OJO

2010

Bideoaren proiektzio bikoitza. 30'24"

2010eko abenduan, Teatro Ojok gonbidapena egin zien Mexiko Hiriko Multifamiliares

Juárez etxebizitzetako auzokoek eratu zituzten bi talderi, 1985eko lurrikarak hondatutako eraikinak zeuden tokian futbol-partida bat jokatzeko. Bozgorailu batean, telebistako kontakizunak entzuten ziren, Mexikoko selekzioa kanporatua izandako hainbat mundu-kopatakoak. Arbitroak jokoa geldiarazten zuenean, honelakoak ateratzen ziren jokalariek zituzten turutetatik: hitzaldiak, kantak, himnoak, gerra-adierazpenak, esloganak, publizitateko iragarkiak eta modernizazioa agintzen zuten betegabeko promesak. Lan honek fikzio gisa aurkezten du kontratu soziala, Mexikoko oraintsuko testuinguru sozial eta politikoa, faltsututako ideia gisa ez bada, fantasian arituz eginda bezala.

TEATRO OJO (Mexiko Hiria, 2003) talde eszeniko bat da.

‘Casino Lux (Barreka hasi zara baia negarrez akabeu biozu)’

JON MIKEL EUBA

2004

Bi kanaleko bideo-instalazioa. 23'45" eta 10'04"

Eubak artisten egoitza bateko sotoetan egin zuen lan hau. Egoitza Luxembourg kasinoan zegoen kokatuta behin-behinean. Bi kamerak egoera bat jasotzen dute: argi urriz, aktoreek kameratik kanpo emandako jarraibideei erantzuten diete. Audioan, urratsak eta barre urduriak. Emaizta antzinako talde-erretratu zapuztu baten modukoa da: jatorri desberdinetako hainbat artista gazte Europako arte-zentro batean pilatuta mende batetik bestera igarotzeko garaian. Begiratzeko ekintzak, bideo barruan eta kanpoan, jendarteko arauetik adostasuna du oinarrian. Jendetasunez, onartzen dugu. Pixkanaka, ondorioak

agertzen dira, egilearen esanetan «babes-erretreatua» den lan honetan. Ikusleak, hor egonda, bidea ematen die gu-haiek bikotearen aldagaiei. Ezeroso dago, begira dituen batzuk bezala. Ez dira lagunak, ez etsaiak.

JON MIKEL EUBA (Amorebieta, 1967) artista Bilbon bizi da.

2. SAIOA

GORPUTZEN ARTEKO KONTRATUA

2013ko maiatzak 20

ISABEL DE NAVERÁNek eta BEATRIZ CAVIAk gidatua

TESTUA:

Bojana Kunst: 'Dantza eta lana: dantzaren potentzial politikoa eta estetikoa' (2009)

Agertoki sozialak gorputzak beren eguneroko mugimenduen bidez eratzen direla erakusten du; eta galdetzen dugu: posible al da lanak historikoki baldintzatu izan duen gorputzaren heziketatik askatzea? Ze neurritan lagundu ala oztopatu zuen dantza modernoak lanaren efikazia produktiboganako gorputzaren mendekotasuna? Arratsalde hartan, lanaren eta bizitza pribatuaren arteko harremanaz beste, zinemak gorputzen errepresentazioan jokatzeko duen paperaren gainean ere eztabaidatu genuen. Louis Lumière-n 'Langileak fabrikatik ateratzen Lyon-en' (1895) filmatik abiatzen den BADco kolektiboaren '1

poor and one 0' izan genuen hizketagai, fabrikako ateen atzean nahiz horietatik kanpo –langileen aisialdian, hauek, adibidez, antzerkera joaten direnean– eratzen diren ezkutuko koreografiak agerian jartzeko.

'Gasteven besoa'

ACADEMY OF WORK

2011– gaurdaino
Instalazioa

1920an, Leninek agindua eman zion Aleksei Gastev poeta eta ingeniariari, landa-giroko Errusia aldatu, eta Sobiet Batasuna industrial bilakatzeko. Erantzun gisa, Gastevek sistema bat diseinatu zuen, ariketa fisiko eta psikologiko batzuk eginez nekazariak langile bihurtzeko. Mailua izan zen ingeniari-tza sozialeko fantasia horren tresna nagusia. Gasteven ustez, mailuaren kolpearen zehaztasunak argi irudikatzen zuen nola askatzen zen mendetasunetik industrializazioan murgilduta zegoen norbanakoa. Jatorrizko makina eta planoak galdu dira; kopia bakan batzuk baizik ez dira gorde. Academy of Work-ek makina gogoangarri hori biziberritu nahi du.

ACADEMY OF WORK (2011– gaurdaino) Arne Hendriks, Joost Janmaat eta Jasper van den Berg-en arteko elkarlan bat da.

'Serigrafiak, holografiak eta oihalak'

MALÚS ARBIDE

1999–2014
Serigrafia, holografia eta oihal saila

Mugimenduak Malús Arbideren piezen gainean paratutako begirada pizten

du. Bere lanetan, errepikapenen, arrazoizko arauen eta erreproduzitzeko prozesu zehatzen bidez sortzen diren formak. Batzuetan, forma horien atzean, eguneroko bizitzako objektuak ezkututzen dira, nekez identifika daitezkeenak. Lerradura arin batek, bira batek, mugimendu batek bultzatzen du arrazionaltasun hori, eta pertzepzioen joan-etorria sortzen du. Ikusgai dauden piezek gure begirada goratzen dute, eta,aldi berean, inguratu egiten gaituzte, mugimenduan bertan sartuz.

MALÚS ARBIDE (Donostia-San Sebastián, 1958) artista eta ehun-diseinatzailea da eta Bilbon bizi da.

‘1 poor and one 0’

BADco

2008

Antzezlana

2014ko abenduak 11

Alboko pantailan, zinemaren historian filmatutako lehen eszena proiektatuta: ‘Langileak Lyongo Lumière lantokitik ateratzen’ (Louis Lumière, 1895). Langileak fabrikatik atera, eta ikusleak antzokira sartzen dira. Interpretatzaileek hainbat modu garatzen dituzte subjektu langilea ikusleen aurrean desegiteko, eta, bitartean, langilea eraldatzeko prozesu batera doa herrestan pixkanaka: zinemaren herri-baliabidetik antzerki politikotik populistara. Antzerkia abian dauden irudietan ahituta; irudiak ahituta mugimenduko antzerkian. Ikuspegi-aldaketa.

BADco (Zagreb, 2000) elkarlaneko performanceak egiten dituen talde bat da, eta Kroazian du egoitza.

‘Figures and Prefigurations (Divers)’ eta ‘The Staff that Matters’

ASIER MENDIZABAL

2009

Collage-saila

Sailetan abangoardiako artisten fotomuntaketak berregiten dira, testuinguru ideologiko desberdinetatik abiatuta antzeko bereizmen formalak lortu zituzten artistenak. Collage guztiek eredu bera dute, elkartutako gorputzen argazkiekin egindako eredu, jatorrizko fotomuntaketetan zeuden gorputzen soslaia jarraiki ebakia. Horiek ere, konposizio bizieta aurrez aurre jarrita, garai bereko –gerra arteko Europako– prentsa irudizatutako argazkietatik ebakita daude. Urte horietan, makinikoa eta korporala zena nagusitzen zen paisaia: gorputza –gimnastikoa, erotikoa, gerraria– gailu mekaniko gisa, makina soziala gorputz gisa... Sailetan, muntaketa egiteko teknikak erreplikari eta inbertsioen bidez adierazten du konpondu gabe dagoen tentsioa, hondoaren eta figuraren, formaren eta edukiaren, eta banakako eta taldeko subjektuaren artekoa.

ASIER MENDIZABAL (Ordizia, 1973) artista da eta Bilbon bizi da.

‘U y quebreira’

DANIEL STEEGMANN MANGRANÉ

2013

‘U’: Altzairu galbanizatutako egitura modularra, inprimazioa, beira-zuntzeko ziriak eta imanak. ‘quebreira’: Kanal bakarreko soinu-instalazioa. 23’08”

Petrobrás itsasontzi-plataforman, Latinoamerikatik etorritako langileek 24

ordu ematen dituzte lanean, urteko egun guztietan. Langileen joan-etorriak eta erauzteko jarduerak ateratako zaratak paisaia tirabiratsua sortzen dute. Egileak soinu-grabazio batean jaso zuen, plataformari egindako bisitetako batean. Joana Saraivak flauta-jotzaileak interpretatu zuen, entzungailuekin entzuten zuen bitartean bere gorputzak egindako dardarei baizik jarraitzen ez zuela. Horren emaitza 'quebreira' da. Bertan, interpretatzailearen gorputzak biltzen eta adierazten du tentsioa. Horrekin batera dagoen 'U' eskulturak langileen mugimenduak, gorputzen atsedendialdiak eta lekuak eragindako tentsioan orekak eta afektuak bilatzeko prozesua ditu oinarrian.

DANIEL STEEGMANN MANGRANÉ (Bartzelona, 1977) artista da eta Rio de Janeiron bizi da.

3. SAIOA

KONTRATUA PRODUKZIO MODUETAN

2013ko ekainak 3

ISABEL DE NAVERÁNek eta BEATRIZ CAVIAK gidatua

TESTUA:

Hanna Arendt: 'Hitzaurrea' eta '*Vita activa* eta giza kondizioa'. In: *Giza kondizioa* (1958)

Saio hartan lan bizitzaren eraldaketari buruz eztabaidatu genuen, Arendt-en testu ezaguna Isabell Lorey-ren 'Gubernamentalitatea eta norbere

prekarizazioa' (2006) saiakerarekin elkarrizketan jarriz. Lanaren eta aisiaren artean bereizteko zailtasun gero eta handiagoari buruz gogoeta egin genuen; zailtasun hori, hein batean, lanaz kanpo sortzen den ekimen oro, produktibitate handiago baten mesedetan, hark baliatua izaten delako ematen da. Etengabeko malgutasunaren exijentziak, prekarietatearen handitzearekin batera, lehen ongizate estatuaren eskumen zen gure lan baldintzen gaineko ardura geure gain hartzera darama. Norbera bere buruaren jabe egiten da; horrek ez du askatasun maila handiago batetara eramaten ordea, bizi kondizioari dagokionean hainbat paradoxa sortaraztera baizik.

'11 eskultura bizirik dagoen seme batentzat'

ELENA AITZKOA

2008

11 eskultura saila

«2008. urtean, eskultura bat egin nuen astean behin. Denek ez dute bizirik iraun. Hemen hamaika eskulturako aukera aurkezten dut. Haietako bakoitza emaitza berezia da, egun bizi batez etengabe egiten eta desegiten aritzearen ondorioa: korapiloak, tolesak eta objektuen fagozitazioa; neure arropa eta tailerreko objektuak (mailu asko). Kolorea: ehunena eta margotutako kolorea, olioia. Hauxe dira: aurpegi askotako objektu bakartuak. Lehen ez zegoen eta orain badagoen zerbait. Puntuak espazioan. Elkarrekin, beren presentzia bilduz, zabalago bilakatu nahi dute espazioa.»

ELENA AITZKOA (Apodaka, 1984) eskultorea da eta Bilbon bizi da.

4. SAIOA

KONTRATUA GAILU BEZALA

2013ko ekainak 17

LEIRE VERGARAK eta MIREN JAIOK gidatua

TESTUAK:

Giorgio Agamben: 'Zer da gailua?' (2006)

Michel Foucault: 'Gubernamentalitatea' (1978). In: *Estetika, etika eta hermeneutika*

Agamben-en eta Foucault-en bi saiakera enblematikotatik abiatuta, gailuaren kontzeptuaz eztabaidatu genuen erakusketarekin duen harremanari dagokionean. Horrela, erakusketa bat, erakusten diren objektuen arteko loturak gobernatzeko eta arautzeko dituen berariazko sistema bezala uler daiteke. Gobernaketa hori protokolo errepikakorretatik kanpo eman daitekeela irudikatzen saiatu ginen, horrela, erakusketarena bezalako testuinguru publiko batean elkarlotzen diren objektu eta subjektuen arteko beste modu batetako harremanen garapenari bide eman ahal izateko. Eta erakusketa bera, bere askotariko tranpen eta potentzialitateen etengabeko berrikustea eskatzen duen kontratu mota bezala identifikatuz amaitu genuen. Irakurketa taldeko zenbait pertsonak, bizi diren hirian eragiten duten gobernu moduak eszenaratzeko, beren etxeetatik objektuak ekarri zituzten lehen aldia izan zen.

'Serigrafiak, holografiak eta oihalak'

MALÚS ARBIDE

1999–2014

Serigrafia, holografia eta oihail saila

Artistak era askotako euskarriak, materialak eta teknikak erabiltzen ditu, esate baterako, holografia lentikularra eta pintura.

Ehundurak, erabilitako ereduak eta eskala aldetik dagoen desberdintasunak sortzen duten pertzepzioak gogora ekartzen dizkigu abangoardia historikoetako artista eta diseinatzaile batzuek –adibidez, Herbert Bayer, El Lissitzki, Frederick Kiesler edo Lily Reichek– erakusketak muntatzeko lanetan erabili dituzten baliabide batzuk. Museoko pareten gainean zuzen jarrita, baliabide horiek astindua eman nahi diote ikuslearen begiespen pasiboari. Erakusketako bi ataletan kokatuta, artistaren piezek lagun egiten diote ikusleari aretotik dabilen bitartean, bere pertzepzioa baldintzatzen.

MALÚS ARBIDE (Donostia, 1958) artista eta ehundiseinatzailea da eta Bilbon bizi da.

'EL CONTRATO'

LUCA FREI

2014

Erakusketako muntatze-lana

Bulegoa z/b ekimenak gonbidapena egin dio artistari EL CONTRATO erakusketako muntatze-lana diseinatzeko. Bere proposamenean, egitura arkitektoniko baten bidez, talde-erakusketa baten espazio-logiketara eramaten ditu irakurketa-talde batek dituen dinamikak. Artistak ekimenaren kideekin izan dituen hizketaldiei esker, hainbat proposamenetan gauzatu du lana: erakusketa-aretoko espazioa banatzeko diseinua; Gorka Eizagirre diseinatzailearen parte-hartzea, irakurketa-taldean izandako eztabaiden eta materialen berri ematen duten hamabi posterren sailarekin; hamabi irakurketa-saioak eta erakusketako hamabi gai-atalak harremanetan jartzen dituen planoaren marrazkia; eta, azkenik, etxeko

eserlekuak eta aulkiak eramateko gonbita, erakusketako espazioaz jabetzeko.

LUCA FREI (Lugano, 1976) artista eta diseinatzailea da eta Malmö bizi da.

'Strength #1'

LUCA FREI

2013

'Strength' instalazioaren argazkia duen kartela

Alhóndiga Bilbaok Urkixo zumarkalean duen fatxadan jarritako kartelean egindako esku-hartzea. Kartelean, 'Strength' (2013) instalazioaren argazki bat inprimatu da. Instalazioak hamabost aulki suitzar ditu, 'Horgenglarus classic 1-380', zortzi aulkiko bi zirkulutan antolatuta eta aulkietako baten bidez lotuta. Zirkuluetako batean, aulkiak kanpora begira jarrita daude eta esertzeko gonbita egiten dutela ematen du; beste zirkuluan, barrurantz paratuta daude aulkiak eta bilera intimo baten itxura iradokitzen dute. Bi taldeek aulki bat partekatzen dute, elkargune gisa. Aulki hori, kanporantz zabaltzeaz batera, barrurantz biltzen da, multzoak banatzeko duen dinamika erakutsiz. Karteleko irudiarekin batera, Georg Siemmel esaldi bat dago: «Inorekin trataturik izatekotan, norekin ari zaren jakin beharra daukazu aurrena».

LUCA FREI (Lugano, 1976) artista eta diseinatzailea da eta Malmö bizi da.

'Strength #2'

LUCA FREI

2014

Inprimatze digitala duen alfonbra

Lan hau berariaz egin da erakusketa honetarako. Tamaina handiko alfonbra bat da, eta marrazki tekniko bat du inprimatuta: zortzi aulkiko bi zirkulu, aulkietako baten

bidez lotuak. Marrazkian, 'Strength' (2013) instalazioan erabilitako hamabost aulkien oinplanoaren plano agertzen da. Instalazio horren argazkia 'Strength #1' kartelean dago ikusgai, Urkixo zumarkalean. Aretoaren barruan, alfonbra biltzeko espazio publiko bat da, erakusketarekin batera egingo diren jarduera gehienak bertan izango baitira. Eta, jolas baten gisa, badirudi marrazkiak gonbit egiten digula, alfonbraren gainean aulkiak era berean banatzeko, edota konposizio berriak asmatzeko, banaketa horren mugetatik harantz joz.

LUCA FREI (Lugano, 1976) artista eta diseinatzailea da eta Malmö bizi da.

'Mari-Fenix irratia'

JELETON

2014

Audioa

Emititzeko ordua: astearte eta ostiraletan, 16:00etan

EL CONTRATO erakusketarako sortutako 'Mari-Fenix irratia' bidez, ahozkoa, entzuketara txertatzen dira giroan. Mexikotik eta Bartzelonatik iritsitako programek instituzioekiko kontratuak, arlo publikora eta hedabideetara iristeko sarbideak, eta lotura feministak bezalako gaiak dituzte hizpide. 'Radio Guerrilla' erakusketan emango duen tailerrean (urriaren 25ean eta 26an), behar diren tresnak eskainiko dira irratia ibiltari bat baliabide soilekin sortzeko. Irratiaren ekintza Erakusketa Aretoko obraren zati bat izango da, eta Internet eta bozgorailuen bidez emango da. mariborbor.tumblr.com helenistikafenix.tumblr.com www.radioguerrilla.org

María Ángeles Alcántara Sánchez (Murtzia, 1975) eta Jesús Arpal Moya (Barakaldo, 1972) dira JELETON.

5. SAIOA

KONTRATUAREN DESMUNTAIA

2013ko uztailak 1

MIREN JAIOK eta BEATRIZ CAVIAK gidatua

TESTUAK:

Susan Sontag: 'Godard-en *Vivre sa vie*'. In: *Interpretazioaren aurka* (1966)

Jean-Luc Godard: *Vivre sa vie* (1962)

Saio hartako testu nagusia artelan bat izan zen, bere iruzkin kritikoaren laguntzaz 'irakurri' genuen film bat hain zuzen. Iragan mendeko 60ko hamarkadan, Sontag-ek, 'Bere bizitza bizi' idazketa eredu bezala proposatzen zuen, eta zinemagintza «arte grafiko modu» bezala. Iruzkina kritikoan, filma, muntaiaren bidez, fikzioaren eta dokumentuaren, eleberriaren eta saiakeraren, poesiaren eta prosaren arteko mugak gainditzen dituen tresna diskurtsibo bezala aurkezten da. XX. mendearen hastapenetatik, muntaia filmikoaren eta collagearen zorizko poetika, aurrez ezarritako taxonomiak desmuntatuko ditu, idazketari eskema linealetatik harago doan espazioa eskainiz. Espazio horrek errealitatearen antolamendu berriei bide emango die, zeinak era berean errealitate berrien produktore izango diren.

'Aidxená'

JOSU BILBAO

2014

Instalazioa

«Zer eskerturik ia ez, eta mendeku hartzeko motibo handiak. Dena zatitu eta interesante

agertu. 'Display' Jauna. Beste hangoen jakitun egonda, bertan lotu giñen, piztien odola eta estatuak azterka. Hautsirik gaude, bikotzen artean armin, alkohola eta suzko armak. Garrotearen kontratua, taxonomiak, hondarrak, kontakizunen amaiera eta tartar. Tiro ederra garunetan. Animalia arrotza. Akabuen, dogonak benetan zelakoak diren ulertu beharra dago. Hipotesi hauen kritika zorrotza Bilboko Alondegiko programazioan bilatu.» ['Kontratuaren desklasifikazioa' 7. zenbakiko irakurketa-saioko aktaren zatia, artistak idatzia.]

JOSU BILBAO (Bermeo, 1978) artista da. EL CONTRATO irakurketa-taldeko kidea da.

'Mueda 1979 (The Mozambique Archive Series)'

CATARINA SIMÃO

2013

Bideoa. 11'

1960ko ekainaren 16an, Portugalgo indar kolonialek sarraski handia egin zuten Muedan (Mozambiken). Historiatik aztertuta, une horretan altxatu ziren Mozambikeko biztanleak, orduantxe hartu zituzten armak Portugalari aurre egiteko eta matxinada abian jartzeko. 1979an, Ruy Guerrak gertaera horri buruzko 'Mueda, Memória e Massacre' filma egin zuen, horri buruzko galderak eta zinemagintzan irudikatzeak zituen ondorioak nabarmentzeko. Simão film horretako sekuentzia bat berrinterpretatzen du, zuzendariak 1979an adierazi zituen arazo berberak azpimarratzen ditu, eta bere gain hartzen du artista gisa duen erantzukizuna: azalpena, edizioaren eta muntatze-lanaren nagusitasuna, eta begirada kontakizunaren beste puntu batzuetan jartzeko aukera.

CATARINA SIMÃO (Lisboa, 1972) artista eta ikertzaile independentea da, eta Lisboan bizi da.

6. SAIOA

TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO KONTRATUA

2013ko uztailak 15

BEATRIZ CAVIAK eta ISABEL DE NAVERÁNek gidatua

TESTUA:

Roland Barthes: 'Elkarrizketa Roland Barthes-i'.
In: *Teoria* (1970)

Jakintzagai bakoitzak kontratu bat ezarri izan du egiteko moduak eta beren interpretazioa elkarlotzeko, baina zail egiten da teoria eta praktika nozio bereiztu bezala pentsatzea. EL CONTRATO, ikerketa eremu bezala, egiteko pentsatua dago, eta baita nola egiten den pentsatzeko ere. Teoria, Barthes-en hitzetan, idazketaren bidez gauzatzen den praktika bezala uler daiteke. 2013ko uda aurreko saio hartan, irakurketak idazketarekin batera joan behar zuenaz jabetu ginen. Eta halaxe egin genuen uda ondoren itzultzean.

'Contenedor de feminismos'

ANXELA CARAMÉS, CARME NOGUEIRA
ETA UQUI PERMUI

2009–2014

Egitura modularra, dokumentazioa eta bideoa

'Contenedor de feminismos' proiektua artxibo mugikor bat da, 2009an espazio publikorako sortua. Hasieran sortu zenean, emakumeen istorioak, feminismoak eta azken hogeita hamar urteetan Galizian izan diren sexu-askapenerako borroka berreskuratzeko, informazioa biltzeko eta ikustarazteko xedea zuen. Gailua bereziki prestatuta dago materiala hierarkikoa ez den moduan bildu, erakutsi eta ezagutzera emateko, eta, azken batean, sareak sortzeko, testuinguruari eta bildu beharreko informazioari dagokion kontakizunari egokituta. EL CONTRATO erakusketan egin diren doku-ekintzek bertsolaritzan dauden emakumeak dituzte ardatz.
www.contenedordefeminismos.org

2014KO ABUZTUAREN 27KO DOKU-EKINTZA,
BILBOKO ARRIQUIBAR PLAZAN:

Eskerrak Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi eta Ane Labaka bertsolariei.
Laguntza eta itzulpena: Oier Iruretagoiena.

CONTENEDOR DE FEMINISMOS (2009) proiektua Anxela Caramések, Carme Nogueirak eta Uqui Permuik sortu dute.

'Très bien éclairé'

ARANTXA MARTÍNEZ

2014

Argia, gorputza eta pertzepzioa

2014ko azaroaren 27a

«Orain dela bost urtetik hona, irudia eta bisualitatea nozioek interesa pizten didate, gorputzari eta bere gaitasun performatiboari dagozkielako. Nozio horiek aukera ematen didate gorputzari eta egoera eszenikoari buruz behingoan hausnartzeko. Orain arte, Lola Rubiorekin batera egin dut ikerketa-eta sormen-lana. Feldenkrais metodoko prestakuntza jasotako artista horrekin 'The Present' (2011) pieza egin nuen, eta 'Très bien éclairé' lanean argitu beharreko kontu berriak

aipatzen ditugu argiaren eta gorputzaren arteko harremanaz. Gure lana, artista askorena bezala, arlo independentearekiko mugan egon da beti: baliabide urri eta ikusgaitasun gutxi. Ekonomia horrek zehazten du praktika artistikoarekin dugun kontratua, eta metodologia zehatz bat eratzen du lan egiteko, jabetzeko eta ekoizpen partikularra eta asmatutakoa sortzeko».

ARANTXA MARTÍNEZ (Madril, 1975) interpretatzailea eta koreografoa da, eta Berlinen bizi da.

7. SAIOA

KONTRATUAREN DESKLASIFIKAZIOA

2013ko irailak 2

LEIRE VERGARAK eta BEATRIZ CAVIAk gidatua

TESTUA:

James Clifford: 'Surrealismo etnografikoaz'. In: *Kulturaren atakak. Antropologia, literatura eta artea ikusmolde postmodernoa* (1988)

Erakusketa-muntaketa sailkapen modu bat ere bada. Clifford-en testuak, museoetan objektuak erakusteko eta sailkatzeko moduak determinatu zituzten eta denborarekin prozedura hegemoniko bihurtu ziren zenbait prozesu historikoren gainean gogoeta egiten lagundu zigan. Testuan aipatzen den adibide bat, Pariseko Gizonaren Museoaren hasieretan eman zen surrealismoaren eta etnografiaren arteko topaketa abangoardistena da. Arratsalde hartan, desklasifikaziorako mekanismo alternatiboak nola sortu galdetu genion geure buruari. Adibide horrek, 'Durkheim-en eta

Tarde-ren arteko eztabaida' filmaz lagunduta (Bruno Latour Gabriel Tarde-ren paperean eta Bruno Karsenti Durkheim-enean), zenbait sailkapen moduk erakusten dituzten –beste batzuk ezkutatu– botere mekanismoei buruz eztabaidatzeko bide eman zigan.

'Batzarra (El Contrato)'

AGENTZIA

1992– gaurdaino

Hainbat baliabide

Agentziak '002115 gauza (Promenades en Pays Basque)' atera du bere 'gauzen zerrendatik' EL CONTRATO erakusketarako. Biarritzeko Les Ballets Basques Oldarra taldeak eta Europa Est-ek 'Promenades en Pays Basque' diskoaren inguruan izan zuten legezko eztabaida du aztergai. Diskoan, Europa Est-ek baimenik gabe sartu zituen Les Ballets Basques Oldarra taldearen dantzarako musika-piezen interpretazioen grabazioak. Folk-musika 'jabari publikokoa' da, baina, hala ere, dantza-taldeak egile-eskubideak eskatu zituen musikako interpretazioagatik. 1977ko martxoaren 28an Baionako Eskualdeko Auzitegian izan zen epailetan, epaileak argi zehaztu behar izan zuen folk-musikaren interpretazioa babestu ote zitekeen, 'jatorrizko adierazpena' izateagatik. Agentziak «Nola sartu herri-ondasunak praktika artistikoen barruan?» galdera gogoetazaleaz egin zuen sailean sartuta dago kasua.

AGENTZIA (Brusela, 1992) Kobe Matthysek sortutako ekimen artistikoa da.

'Handiras'

TERESA LANCETA

1988–1989

3 'handira' saila

Pieza honek Marokoko Erdialdeko Atlas mendietako emakumeek egindako

Beni Ouarain 'handira' bat eta Teresa Lancetak bi aldeak inspirazio-iturritzat hartuta egindako bi 'handira' biltzen ditu. Egilearen ustez, «'handirak' duen ikus-mintzaira izugarria da: urrutitik zerranda-sail monotono bat dela ematen du, baina, begirada erne eta hurbil baten aurrean, etengabeko mugimenduan dagoen geometria kartsu bilakatzen da. Izan ere, marrazki fin eta konplexuek aldaera ugari dituzte, ia ezin hauteman daitezkeenak, eta egonkortasunik gabeko arreata-guneak sortzen dituzte, eta etenik gabeko harremanak ere bai». Oro har, ikus-mintzaira hori are zirraragarriagoa da, modu eta harreman berriak ezartzen baititu behatzeko, eta, horrenbestez, interpretazioen eta sentipenen sare bilakatzen baita ehuna.

TERESA LANCETA (Bartzelona, 1951) artista eta Artearen Historian doktorea da.

'Das unbekannte Spanien / España, tipos y trajes'

ASIER MENDIZABAL

2012

Diapositiben proiektzio bikoitza

Urrun dauden testuinguru geografikoetakoak izan arren, Kurt Hielscher (1881–1948) eta José Ortiz de Echagüeren (1886–1980) begiradak objektu berean –aurreko mendeko lehen hamarkadetakoko folkloreaken erretratuaren bidez adierazitako 'espainiartasunaren' ideian– eta gailu berean –argazki-albumean– egin zuten bat. Gailu horren bidez, txukun antolatutako katalogo batean jaso eta gorde ahal izan zituzten tradiziozko bizimoduko irudiak, beren kamerek ekarritako modernitatearen ondorioz desagertzeko zorian zeudenak. Proiektzio bikoitzean, irudiak gainjartzeko moduak fotomuntaketan ezustean izaten

diren antolamenduak ekartzen dizkigu gogora, bi albumen garai berekoa baita teknika hori. Fotomuntaketako profil ebakien eta finkoen aurrez aurre, proiektatutako irudiak behin eta berriz desegiten dira, bata bestearen baitan, eta agerian uzten dute ia espektrala den argazki-filmaren materialtasuna.

ASIER MENDIZABAL (Ordizia, 1973) artista Bilbon bizi da.

'Kiti Ka'aeté'

DANIEL STEEGMANN MANGRANÉ

2011

Instalazioa

'Kiti' hitzak gizakiak egindako ebakia esan nahi du; 'Ka'aeté' hitzak baso sarría ematen du aditzera, gizakia iristen ez den aldeko leku mitologikoa. 'Kiti Ka'aeté' lan batzuen izenburua da, guaranien arte abstraktuetako ereduai jarraiki collage bati ebakiak eginez sortu baitira lanak. Guaranien kosmologian, naturaren eta kulturaren arteko muga lausotzen da. Muga hori hizkuntzan bertan eta obran urtzen da, forma ingurune batetik bestera joaten baita, ideia bat garatzeko mugen bila.

DANIEL STEEGMANN MANGRANÉ (Bartzelona, 1977) artista da eta Rio de Janeiron bizi da.

'Maurits Script'

WENDELIN VAN OLDENBORGH

2006

Esku-hartze arkitektonikoa, bi kanaleko proiektzioa (67' eta 45') eta koadernoko gidioa

Obraren oinarria den gidioak hainbat iturritako laburpenak ditu, Johan Maurits van Nassauk Brasilgo ipar-ekialdeko gobernari gisa izandako agintaldiari lotuak denak (1637–1644). Agintaldi horren ondorioz,

Maurits lehenengo buruzagi modernoetako bat izan zela uste da. 'Maurits Script' lanak gobernatzeko arteari, instituzioei eta harreman pertsonalei dagozkien paradoxak eta gatazkak aztertzen ditu, aurkako interesak dituzten hainbat taldek elkarrekin bizitzeko erronkari heltzen dioten uanean. Bideoa Hagako Maurithuis museoan filmatu da (Mauritsekin Brasilen gobernatu zuen bitartean eraiki baitzuen). Parte-hartzaile batzuen arteko bilera jaso du, gidoia interpretatzen eta horretaz eztabaidatzen ari direla, eta aldi kolonialetako zazpi ahots hartu ditu barne. Zuzendariaren, aktorearen eta entzuleen rolak etengabe aldatzen dira, eta, horrenbestez, aurrez finkatutako jarrera edo eredu sozial guztien berrazterketa iradoki nahi da.

WENDELIE VAN OLDENBORGH (Rotterdam, 1962)
artista Rotterdamen bizi da.

8. SAIOA

KONTRATU IDATZIA ETA AHOZKO KONTRATUA

2013ko irailak 16

MIREN JAIOK eta ISABEL DE NAVERÁNek gidatua

TESTUAK:

Gertrude Stein: *Esango banio: Picasso-ren erretratu oso bat* (1923 eta 1933–1934)

Ingeborg Bachmann: *Musika eta poesia* (1959) eta *Poesiaz. Frankfurt-eko bigarren hitzaldia* (1959–1960)

John Cage: *Hitzaldia ezertaz* (1959)

Hitzaldi bat ozen irakurria izateko idazten da. Hitzaldia 'eman' egiten da. Trukea dakar berekin, irakurtzen duen norbaiten eta entzuten duen beste norbaiten arteko hartu-eman bat. Berehalakotasun bat ere badu berekin: irakurtzen duen pertsonak eta entzuten duenak leku eta denbora berbera betetzen dute. Eta, kontraesana badirudi ere, bitartekotasun bat ere bai: gelako temperatura edo ahotsaren tonalitatea bezalako elementuak, testuaren, irakurtzen duenaren, eta entzuten duenaren artean eta parean jartzen dira. Hitzaldi bat ahopeka ere irakur daiteke: irakurtzen ari dena entzuten duena ere bada orain, testua bere begien aurrean partitura bezala tolesgabetzen den bitartean. Zer aldatzen da irakurtzeko modu batetik bestera? Aldatzen dena esperientzia konkretu bakoitzean mugarritzen da. Saio hartan lau hitzaldi irakurri eta entzun genituen.

'Adierazpen-askatasuna bera'

LAWRENCE ABU HAMDAN

2012

Soinu-instalazioa. 30'

30 minutuko soinu-dokumental honek hizketaren eta ahots-aztarnen auzitegiko azterketaren historia eta egungo erabilera ikertzen ditu, eta Erresuma Batuan babesa eskatzen duten pertsonak duten azentuaren jatorria eta egiazkotasuna zehazteko erabiltzen diren metodo eztabaidatuak hartzen ditu oinarritzat. Abokatuek, fonetikako adituek, babesa eskatu duten lagunek eta Barne Ministerioko funtzionarioek emandako lekukotasunak azentuen geopolitika erakusten dute. Soinu-konposizio esperimental honekin batera dagoen

forma eskultorikoak ingelesezko 'you' (zu) hitza esaten duten bi ahotsen ahots-aztarnen anplitudea eta maiztasuna irudikatzen ditu, hitz egin eta entzuteko finkatuta dauden formak zalantzan jarri nahian. Apar-gomazko instalazioak duen soinu-xurgapenaren bidez, entzunaldiaren esperientzia biziagotu nahi da.

LAWRENCE ABU HAMDAN (Gharifé, 1985) artista Londresen bizi da.

'Yolanda (natura hila jabearekin)'

IÑAKI IMAZ

2014

Pinturen saila

Figurek, erretratuek eta hitzek formak eta zirriborroak partekatzen dituzte ehunaren barruan. Bertsoak edo kantak ia ezin dira irakurri. Eta ahalegin horretan, irudi bilakatzen dira. Artistak honela aipatzen du zirriborratze hori: «Sentimentaltasun pozoitsu bat daramagu, daramat herrestan, gutxienez 1975etik hona, ez baitu alde egiten. Kantak, esaera heroikoak, hitzak, errimak, doinu eta harmonia hunkigarriak, akorde negartsuak ditut buruan. Gorputza zeharkatzen didate, harremanak eratu, eta erabakiak baldintzatzen dituzte. Erakarpeta eta biguina nire garunaren muinera itzultzen dira azkenaldian; gure hirietako plazetara ere bai. HORREKIN ZERBAIT egitea pinturan (olioarekin, ahal den guztia zikinduz): prozesu lausoa, Parisen 1913 inguruan edo Atenasen K.a. III. menderako aztertuta zituzten gaiak aurkitzen baititu bidean.»

IÑAKI IMAZ (Donostia-San Sebastián, 1965) artista Gamiz-Fikan bizi da.

'Consensus (The Room)'

KARL LARSSON

2012–2014

Antzezlaneta instalazioa

Bi ekitalditan banatutako antzezlan bat da. Litekeena da antzeztua ez izateko idatzia izatea. Pertsonaiak, eszenako tresneria eta lekuak ez datoz bat, baina elkarren antza dute. Aurre egiten dute, beren patuaren aurrean itsu baleude bezala, pozik ahotsak entzuten. Eszenaren ondotik, idazkera agertzen da; agertokiaren ondoren, testua. Instalazio honetan, elkarriketa bat dago antzezlaneko testuaren eta lau eskulturaren artean: 'Drop Column', marmolezko kirol-jertse bat, ez dagoen gorputz batentzat; 'Blushing Carpet', eskuz aldatutako diseinu digitala duen alfombra bat; 'The Plot is a Model, not a Story', brontzez estalitako gizonezko baten buruaren azterketa; eta 'Unwilling to Name, Unwilling to Represent', hormigoizko arku bat, Parisko Garaipenaren Arkuak dituen proportzio berekoa, hemen irakurlearentzako aulki gisa eskainia.

KARL LARSSON (Kristianstad, 1977) poeta eta artista suediarra Berlin eta Malmö artean bizi da.

'Bat, bat, bi, bat...'

ITZIAR OKARIZ

2012

5 serigrafiako saila

Bost serigrafiako sail batek 'Bat, bat, bi, bat...' performancearen transkripzioa du jasota. Bertan, bi pertsonak zenbakizko segida simetrikoko bat jartzen dute abian, bata bestearen ondoan paratuta, hiru mikrofonoren aurrean, mikrofonoetako bat bete gabe dagoela. Ikusleen aurrez aurre, ahoskatzen duten zenbakia adierazten dute eskuko atzamarrekin, hezurramituz.

Une zehatz batean, haietako batek hatz bakar bat altxatzen du, «hamaika» esanez. 'Bat' zenbakiaren konbentziozko ikurraren aurrean 'hamaika' ahoskatzeak agerian jartzen du zenbakizko ikurra duen gorputz-nolakotasuna. Argi nabarmentzen du hizkuntza-ekoizpenak duen nolakotasun fisikoa eta formala. Behin transkribatu ondoren, esaldi simetrikoen sail bakoitzak irudi bat eratzen du –bost guztira–, eta serigrafietan irudikatzen dira, performancearen bisualizazio eta, aldi berean, partitura potentzial gisa.

ITZIAR OKARIZ (Donostia, 1965) artista da eta Bilbon bizi da.

'Nik esango banio. Picassoren erretratu osoa'

GERTRUDE STEIN

1933–1934

Audio-grabazioa. 3'42"

[Pennsound Archive-ren eskaintza](#)

Konposizioa erretratu, poema eta hitzaldi bat da. Steinek Antibesen idatzi zuen 1923ko udan, New Yorken grabatu zuen 1933 eta 1934ko neguan, eta hitzaldibira batean irakurri zuen 1934. eta 1935. urteen artean. Erretratu lehor eta analitiko bat ematen du, Picassok 1906an Steini egin zion erretratuaren antzekoa. Poema baten itxura ere badu, taupaka ari den geometria eritnikoa sortzen duten errepikapenez osatuta. Edota hitzaldi baten itxura, han eta hemen behin eta berriz irakurtzeko eta entzuteko. Steinen lanetan, idazketaren denborazko alderdia ez da gai bat, lan egiteko materia baizik. Bere hitzetan, ez da «konposizioaren denbora», «denbora konposizioan» baizik.

GERTRUDE STEIN (1874–1946) XX. mendearen lehen zatiko idazle estatubatuar bat da.

9. SAIOA

KONTRATU PEDAGOGIKOA

2013ko irailak 30

ISABEL DE NAVERÁNek eta LEIRE VERGARAK gidatua

TESTUA:

Jacques Derrida: 'Hitzaurrea' eta 'II. Zatia'. In: *Unibertsitatea baldintzarik gabe* (2001)

Unibertsitate publikoan humanitate ikasketen amaierari buruz Derrida-k 1998an eman zituen hitzaldiak ausarkeriazkoak ziruditen garai hartan. Gaurtik begiratura iragarleak dira. Nolako zereginak dakartza irakasle lanbideak? Zer lan sortzen dituzte irakasteak eta ikasteak? Zalantzarik gabe irakasleak lan egiten du, irakasleak irakatsi egiten du. Baina ikasleak ere lan egiten du, nahiz eta berea ez ofiziotzat ez lanbidetzat hartu. Derrida-ren testuari, antzetzoki nagusitzat Boli Kosta-ko institutu bateko ikasgela bat duen 'Giza Piramideak' (1961) filmaren proiektzioa batu zitzaion. Jean Rouch-en filman, ikasle batzuk, inguratzen dituen testuinguru politikoa ulertzen saiatzen dira. Filma ikusi ondoren taldea bitan banatu zen. Azpitalde bakoitzari eztabaidarako ikuspuntu bana eman zitzaion: bata, lana eta lanbidearen arteko harremana; bestea, 'cinéma-verité' deritzonaren muntaketa eta tranpak.

'Interpretazioerdiak edo nola azaldu dantza garaikidea hilda ez dagoen erbi bati'

BADco

2010

Dantza

2014ko abenduaren 13a

Joseph Beuysen 'Nola azaldu margolanak hildako erbi bati' performance historikoak (1965), azpi-izenburuan parafraseatutakoak, modu kontzeptualean egituratzen du pieza. Dantza garaikidearen definizioaren azpian dauden funtsezko ideia batzuei buruzko gogoeta koreografiko gisa agertzen da. Alabaina, era berean, aukera ematen digu geure buruari galdetzeko nola ikusiko litzatekeen dantza hori, ez ikusle edo interpretatzailearen ikuspegitik, lekuko diren objektuen eta gauzen ikuspuntutik baizik, horien egoera 'naturalak' lekuz aldatzen baitu gorputza bizidunen mundutik bizigabe dagoenaren kutxa beltzera.

BADco (Zagreb, 2000) elkarlaneko performanceak egiten dituen talde bat da, eta Kroazian du egoitza.

'Amodioa eta pedagogia II'

IÑAKI IMAZ

2014

Ehun gaineko olioia

2002an aurkeztu zuen saila Artelekun (Donostia-San Sebastián), hamabi urte lehenago egin zituen bi margolan berriz erakutsi ondoren asmatutako instalazioan. Hamabi urte igarota, margolariak berriz hartu zuen lan hori, bere lanean azaltzen diren bi gai nagusirekin –amodio eta pedagogiarekin– duen konpromisoa denboran luzatuz era horretan. Hona hemen bere hitzak: «Dagoena baino ezin da eman, ezin da irakatsi, dagoena ezer izanda ere, edo beharbada horregatik. Prozesuan, batzuetan, zenbait unetan erraztasuna nagusitzen da, eta argitasuna, zehaztasuna, doitasuna trinkotzen ditu. Beharbada estiloa

baizik ez da izango bere eraginkortasunean, baina ez du ematen, eta emaitzak misteriozkoak dira norberarentzat. Orain hautatzen eta multzokatzen ditut, maitekiro pedagogikoak direla uste dudalako, nik ez dakidana irakasten dutelako.»

IÑAKI IMAZ (Donostia-San Sebastián, 1965) artista Gamiz-Fikan bizi da.

'Scuola senza fine'

ADRIANA MONTI

1983

16 mm-ko filmaren proiektzio digitalizatua zuri-beltzean. 35'

1973tik aurrera, Italiako langileek ordaindutako hezkuntza-jarduerak egiteko aukera izan zuten, '150 orduko' ikastaroaren bidez. Handik gutxira, etxeoandreak ere hartu zituzten barne ikastaroan, 'Hauts gehiago gure etxean, gutxiago gure buruan' lelopean. 'Scuola senza fine' ('Amaierarik gabeko eskola') filmak zehatz islatzen ditu hezkuntza-saiakuntza horretan parte hartu zuten emakume batzuen esperientziak. Emakume horiek –ikasleek eta irakasleek, hirikoek eta baserri-aldeetatik iritsitakoek, amek eta seme-alabarik ez zutenek– hausnarketa egiten dute 'beren gela' lortzeko egin zuten borrokapaz, partekatu zuten denbora, ikasketa, irakurketa eta idazketa oinarritzat hartuta. Montiren esanetan, filmak islatzen dituen «formetan, gogoeta garatzen eta hedatzen da, sukaldeko mahai batean gau erdian, agertoki batean, edota marrazketa-orri zuri baten aurrean, dantza egiten den bitartean.»

ADRIANA MONTI (Milan, 1951) zinemagile eta gidoilari italo-kanadarra da.

10. SAIOA

KONTRATUAREN PERFORMATIBITEA

2013ko urriak 14

BEATRIZ CAVIAK eta LEIRE VERGARAK gidatua

TESTUA:

Judith Butler: 'Egintza performatiboak eta generoaren eraketa: fenomenologiaz eta teoria feministaz saiakera bat' (1990)

Kontratuaren elementu eratzaileetako bat errealitatea sortzeko duen gaitasuna da. Butler-ek performatibitatearen ideia berreskuratzen du –aurrez John Austin, John Searle, Jacques Derrida edota Roland Barthes-ek erabilia– identitatearen interpretaziorako pentsamendu garaikidearen erreferentziatzko kontzeptu bilakaraziz. Egile beraren beste testu baten bidez –'Performatibitatea, prekarietatea eta sexu politikak' (2009)– performatibitatea irakurketa taldean lehendanik ezaguna zen beste kontzeptu batekin lotu zen; prekarietatearenarekin. Ariketa kolektibo bezala, genero analisia arrazara, klasera eta adinera eraman genuen gure kontratuen mugak bistarazi zituen 'egintza' batean.

'Esperientzia artistiko batean parte hartu nahiko zenuke?'

RICARDO BASBAUM

1994– gaurdaino

Objektu performatiboa, egitura arkitektoniko-
eskultorikoa, diagrama

Artelana NBP–Novas Bases para a Personalidade proiektuko zati bat da eta NBP objektuaren inguruan egituratzen da. Proiektu horrek subjektibotasunari buruzko ikerketak biltzen ditu, marrazki, objektu, instalazio, testu eta adierazpenen bidez. 1990eko hamarkadaren hasieran abiarazi zen, Brasilgo diktadura militarra amaitu, eta mundu mailako errealitateak indarra hartu zuenean. NBP proiektuak dituen arloek artearekin, komunikazioarekin eta kutsatzeko teoriekin dute muga. Artistak, objektuak eta harekin dagoenak egindako isilpeko akordioaren bidez, NBPk zalantzan jartzen ditu banaketa eta harrera nozioak. Akordio horri esker, gorputzei dagokien elkarketa moduko zerbait gerta daiteke. NBP hartzen duten instituzioekiko kontratu-akordioa idatzi gabe dago oraindik. EL CONTRATO garatu bitartean, zirriborroa aurkeztuko da.

RICARDO BASBAUM (São Paulo, 1961) artista eta idazlea Rio de Janeiro bizi da.

'Femø emakumeen kanpalekua 2008: filma eta hitzarmena'

KAJSA DAHLBERG

2008–2010

Instalazioa, kanal bakarreko proiektzioa (15')
eta kontratua

Femø uhartean (Danimarka), orain dela lau hamarkadatik hona, emakumeen kanpamentua izaten da udan. 2008ko udako azken astean, kanpamentua nola desmuntatu zuten filmatzeko, Dahlbergek kontratu bat sinatu zuen, grabazioak izango zituen baldintzak zehaztuta. Kontratuak eta bideoak lana ekoizteko baldintzak zehazten dituzte, eta argi erakusten dituzte kanpamentuak izan zituen muga fisikoak eta sinbolikoak, kontratuan agertzen diren oharretan islatzen denez. Horrez gain,

taldeko ekintza eta eguneroko zereginak betetzeko mugimendu feministen artean izan ziren adostasunak, desadostasunak eta antolatzeke moduak azaltzen dituzte.

KAJSA DAHLBERG (Göteborg, 1973) artista da eta Berlinen bizi da.

‘EL CONTRATO irakurketa-taldea’

2013–2015

Hasierako akordioa testuak irakurtzeko aldian behin biltzeko lotzea da. Akordioak aldi batez iraungo du, taldeak beste, eta arian-arian berrituko da. Arian berritzeko, akordioaren oinarria izan ziren baldintzak berrikusi behar dira. Hor eztabaidak sor daitezke, eta, ondorioz, litekeena da klausula berriak idaztea. Adibidez, nola interpretatu halako testua, zertarako egin elkarrekin, edo nola antolatu arratsalde batez elkartu eta irakurtzeko biltzen den talde gisa.

EL CONTRATO IRAKURKETA-TALDEAK bi aldi ditu: 2013ko apirilaren eta 2014ko otsailaren artekoa, eta 2014ko urriaren eta 2015eko urtarrilaren artekoa.

11. SAIOA

ARTXIBOA KONTRATU BEZALA

2013ko urriak 28

LEIRE VERGARAK eta ISABEL DE NAVERÁNek gidatua

TESTUA:

André Lepecki: ‘Gorputza artxibo bezala: jolaserako grina eta dantzen biziraupena’ (2010)

Nola berraktibatu iraganeko dantza edo antzezlan bat, eta hori nola egin artxiboaren ohiko mugetatik kanpo, agian, gorputza erabiliz? Lepecki-k koreografiatik garatu izan diren zenbait berraktibatze praktikari ‘artxibo grina’ deitzen die. Alor artistiko, politiko eta historikoei dagokienean artxiboaren esanahiaren inguruko eztabaidak gaur egungo dantza elikatzen du. Saio honetako erronka eztabaida hori komisariotzaren eremura eramatea izan zen, horrela, artxiboak –iraganeko zantzuak erakusten dituen konstruktio moduan hartuta– praktika kuratorialekin finkatzen dituen kontratuak zeintzuk diren ulertzeko. Artxiboa gorputz-praktika eta bizi bezala pentsatzeak ez du soilik koreografiaren eta komisariotzaren arteko korrelazio interesgarri bat finkatzen. Halaber, bide ematen du pentsatzeko nola komisariotzak artxiboaz –erakusketa formatu bezala– abusatu izan duen.

‘Desagertutako langile baten bila’

RABIH MROUÉ

2003

Antzezlan

2014ko azaroaren 6a

«Aurreko asteazkenean, R.S. izeneko Ekonomia Ministerioko langileak bertan behera utzi zuen bere familia. Emazteak nork atxiki duen jakiteko duen eskubidea aldarrikatzen du. Alabaina, R.S. desagertzea, hurrekoentzat tragedia bat izateaz gain, herritar guztiekiko erabateko begirune-eza ere bada». Benetako gertaerak oinarritzat hartuta, Mrouék antzezlan bat aurkezten digu, polizia-kasu nahasi hori eta ondoriozko arazo politikoak eta ekonomikoak azaltzeko. Eta egunkarietako ebakinetan adierazitako ‘egiaren’ arrastoari jarraitzen dio horretarako. ‘Desagertutako langile baten bila’ lanak

hausnarketa egiten du hedabideen bitartez egiaz izaten den pertzepzioaz, eta, era berean, zurrumurruez, salaketez eta polizien adierazpenez. Bestalde, antzezen kritikoa egiten du hori guztia irudikatzeko izaten den moduz.

RABIH MROUÉ (Beirut, 1967) antzerkigilea, saiakeragilea eta artista da. Beirut eta Berlin artean bizi da.

12. SAIOA

KONTRATUA PENTSATZEAREKIN

2014ko urtarrilak 13

MIREN JAIOK eta LEIRE VERGARAK gidatua

TESTUAK:

Jacques Le Goff: *Intelektualak Erdi Aroan* (1957)
Adriana Monti: *Scuola senza fine* (1983)

Lehenik intelektualaren figura aztertzen duen testu bat irakurri genuen. Ondoren intelektualaren zereginaz, pentsatzeaz, diharduen film bat ikusi genuen. Pentsatzeko gutxieneko batzuk behar dira: denbora behar da, hori ziurtatuko diguten baldintza materialak izatea, hizkuntzak ematen dizkigun tresnak eta norberaren kontzientzia. Jakin-mina eta autonomia ere behar dira. Pentsatzea baita berezko praktika kritikoa. Baina, oroz gain, pentsatzea praktika dialogikoa da. Garrantzitsua da mundutik gehiegi urrundu gabe egitea. Irakurketa talde baten barruan, adibidez. Saio hartan, pentsatzeei, jakiteei eta norbere kontzientzia hartzeei buruz gogoeta egin genuen Eulalia Abaitua,

Pier Paolo Pasolini, Josefina Carabias eta Virginia Woolf-en testuen eta irudien bidez.

‘Eguneroko bizitzako eszenen argazki-saila’

EULALIA ABAITUA

XX. mendearen hasiera
42 argazki-kopia

Argazkietan, eguneroko bizitzako eszenak agertzen dira, eta XX. mende hasierako Bizkaiko baserri- eta hiri-giroetako emakume langileak dira protagonistak. Ez da hori Abaituak landu zuen gai bakarra, baina toki gailena hartzen du bere lanean. Argazkilaria kamera hartuta ateratzen zen kalera, eta bere zereginetan ari zen jendearekin egiten zuen topo, bizibideko lanetan ziharduera gehienetan. Argazkien multzo osoak eskaintzen digun erretratu etnografikoan, bizimolde zaharrek bat egiten dute molde berrieekin. Jakin-minez kamerari begira dagoen izenik gabeko jendearen erretratua da. Hausnarketa egin dezakegu ea zein neurritaraino ez ziren lagungarriak izan emakumeek botatoko begirada laburrak, argazki-kamerak finkatu zituen horiek, munduko subjektu gisa kontzientzia har zezaten.

EULALIA ABAITUA (1853–1943) Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria izan zen.

‘Años felices. Cierre es la respuesta’


TERESA LANCETA

2011
Bideoa. 8’40”

Teresa Lancetaren esanetan, ‘Cierre es la respuesta’ «kronika askotariko bat da, Alacanteko tabako-fabrikak

garai batean izan zituen emakumezko langileen eta gizonezko batzuen ahotsak biltzen baititu, langile horiek ohartuki eta grinaz helarazi baitizkigute lanean izan zituzten esperientziak eta barru-barruko bizipenak». Piezak hainbat bideo ditu, eta gai hauek ditu hizpide: lan egiteko modua, lehenik eskuzkoa eta gero mekanizatua, emakumeen lan-baldintza zehatzak, eta lanean sortzen ziren elkartasuneko lokarri sendoak, familia barruan belaunaldiz belaunaldi helarazitakoak. 'Años felices' piezako lehen bideoa da, eta fabrikako giro familiarra erakusten du. Entzuten diren ahotsak pantailan agertzen diren pertsonenak dira. Ikerlana saiakera honetan dago jasota: 'Mujeres e industria tabaquera en Alicante' (Edicions del Bullent, 2013).

TERESA LANCETA (Bartzelona, 1951) artista eta Artearen Historian doktorea da.



EL CONTRATO ERAKUSKETAKO JARDUEREN EGUTEGIA*

ESZENIKOAK

'DESAGERTUTAKO LANGILE BATEN BILA'

RABIH MROUÉ

DATA: 2014ko azaroaren 6a
ORDUA: 20:00
LEKUA: Auditoriuma. -1. solairua

'1 POOR AND ONE 0'

BADco

DATA: 2014ko abenduaren 11
ORDUA: 20:00
LEKUA: Jarduera Osagarrien Zentroa. 2. solairua

'INTERPRETAZIOERDIAK EDO NOLA AZALDU DANTZA GARAIKIDEA HILDA EZ DAGOEN ERBI BATI'

BADco

DATA: 2014ko abenduaren 13a
ORDUA: 20:00
LEKUA: Auditoriuma. -1. solairua


IRAKURKETA-SAIOAK

EGUNAK:

2014ko urriaren 9a eta 23a
2014ko azaroaren 13a eta 20a
2014ko abenduaren 12a
2015ko urtarrila (eguna zehaztu gabe)

ORDUA: 16:00etatik 19:00etara

LEKUA: Erakusketa Aretoa. -2. solairua



ARETO BARRUKO HITZALDIAK ETA JARDUERA PERFORMATIBOAK

HITZALDIA

SOFT FOCUS ETA ONDOREN BALIO FAZIALA

ASIER MENDIZABAL

DATA: 2014ko urriaren 21a

ORDUA: 19:30

LEKUA: Erakusketa Aretoa. -2. solairua

RADIO GUERRILLAREN TAILERRA

JELETON

DATA:

Larunbata, urriak 25, 10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 20:00etara

Igandea, urriak 26, 10:00etatik 14:00etara

Lekua: Erakusketa Aretoa. -2. solairua

EKINTZA

ZOOM OUT; AMETSEN EGUNKARIA

ITZIAR OKARIZ

DATA: 2014ko azaroaren 21a

ORDUA: 19:30

LEKUA: Erakusketa Aretoa. -2. solairua

EKINTZA

TRÈS BIEN ÉCLAIRÉ

ARANTXA MARTÍNEZ

DATA: 2014ko azaroaren 27a

ORDUA: 19:30

LEKUA: Erakusketa Aretoa. -2. solairua

EKINTZA

BATZARRA (EL CONTRATO)

AGENTZIA

FDATA: 2015eko urtarrilaren 9a

ORDUA: 19:00

LEKUA: Erakusketa Aretoa. -2. solairua

SARRERA MODUKO BISITAK


Erakusketako gaia testuinguruan kokatzeko azalpen laburra:

Ostegun, ostiral eta larunbatetan

30 minutu

18:00 euskaraz

19:00 gaztelaniaz



* Jardueretan aldaketaren bat bada, horren berri emango da AlhóndigaBilbaoren web orrian.

ZINEMA-PROGRAMA

EL CONTRATO erakusketarekin batera, zinema-programa izango da. 2013 eta 2014 bitartean Alhóndiga Bilbaon izan ziren eta erakusketa egiteko bidea eman duten irakurketa-saioetan iruzkindutako filmetako batzuk izango ditugu zinema-saioetan, zortzi programa desberdinetan banatuta. Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniazko azpitituluekin.

1. PROGRAMA

'LA PYRAMIDE HUMAINE'

Jean Rouch, 1959
2014-11-05 - 18:00
2014-11-06 - 20:00

2. PROGRAMA

'VIVRE SA VIE: FILM EN DOUZE TABLEAUX'

Jean Luc Godard, 1962
2014-11-12 - 18:00
2014-11-13 - 20:00

3. PROGRAMA

'LES ESTATUES MEURENT AUSSI'

Alain Resnais, Chris Marker, 1953

'FUEGO EN CASTILLA. TRÍPTICO ELEMENTAL DE ESPAÑA'

José Val del Omar, 1960

'A STUDY IN CHOREOGRAPHY FOR CAMERA'

Maya Deren, 1945
2014-11-26 - 18:00
2014-11-27 - 20:00

4. PROGRAMA

'LA PASSION DE JEANNE D'ARC'

Carl Theodor Dreyer, 1928
2014-12-03 - 18:00
2014-12-04 - 20:00

5. PROGRAMA

'CHRONIQUE D'UN ÉTÉ'

Jean Rouch, 1961
2014-12-10 - 18:00
2014-12-11 - 20:00

6. PROGRAMA

'DEIXEM-ME AO MENOS SUBIR ÀS PALMEIRAS'

Joaquim Lopes Barbosa, 1972
2014-12-17 - 18:00
2014-12-18 - 20:00

7. PROGRAMA

'JE VEUX VOIR'

Joana Hadjithomas, Khalil Joreige, 2008
2015-01-07 - 18:00
2015-01-08 - 20:00

8. PROGRAMA

'UCCELLACCI E UCCELLINI'

Pier Paolo Pasolini, 1966
2015-01-14 - 18:00
2015-01-15 - 20:00

EL CONTRATO

KOMISARIOA

Bulegoa Z/B

Beatriz Cavia
Isabel de Naverán
Miren Jaio
Leire Vergara

ERAKUSKETAREN DISEINUA

Luca Frei

ANTOLATZAILEA

Alhóndiga

Bilbao

ZUZENDARIA

Lourdes Fernández

KULTUR PROGRAMAZIOAREN ARDURADUNA

Fernando Pérez

ERAKUSKETAREN KOORDINAZIOA

Rakel Esparza

MARKETING, BABES ETA EKITALDIETAKO ARDURADUNA

Bárbara Epalza

JENDEARI LAGUNTZA EMATEKO ARDURADUNA

Jol Guisasaola

ZUZENDARITZAKO LAGUNTZAILEA

Lorea Juanes

PROGRAMAZIOKO LAGUNTZAILEA

Ainara Bilbao

MUNTAKETA-TEKNIKARIA

Olaia Ibarzabal

KOMUNIKAZIOKO LAGUNTZAILEA

Miren Hernández

DISEINU GRAFIKOA

Gorka Eizagirre

PRENTSA-KABINETEA

VK Comunicación

ITZULPENAK

Toni Crabb
Fernado Quincoces
Maria Colera
Irene Hurtado
Imanol Mujika

KOORDINAZIO TEKNIKOA ETA MUNTAKETA

UTE GIROA-ERAKUS

BABESLEA

BBVA

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Reino de los Países Bajos



EMBAJADA DE SUECIA

Madrid



HEDABIDE LAGUNTZAILEAK


EL CORREO

SEZ

ESKERRAK

Gure eskerrik beroenak proiektu honetan lagundu diguten pertsona eta entitate guztiei, beraien laguntza ezinbestekoa izan da. Esker mila EL CONTRATO irakurketa-taldeko partehartzaileei bereziki.

DL: BI-1353-2014



ZENTROAREN ORDUTEGIA

ASTELEHENA-OSTEGUNA	7:00 - 23:00
OSTIRALA	7:00 - 24:00
LARUNBATA	8:30 - 24:00
IGANDEAK ETA JAIEGUNAK	8:30 - 23:00

MEDIATEKA BBK

ASTELEHENA - OSTIRALA	9:00 - 21:00
LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK	11:00 - 21:00

JARDUERA FISIKORAKO ZENTROA

ASTELEHENA - OSTIRALA	7:00 - 23:00
LARUNBATAK ETA IGANDEAK	8:30 - 23:00

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. ALHONDIGABILBAO ESPAZIO IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.



Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.

www.alhondigabilbao.com

info@alhondigabilbao.com
ARRIQUIBAR PLAZA, 4- 48010 BILBAO
944 014 014

JENDEARENTZAKO ORDUTEGIA, INFOPUNTUAN ETA TELEFONOAN:

ASTELEHENA OSTIRALA	8:00 - 22:00
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNAK	9:00 - 22:00



www.alhondigabilbao.com